

Ikastolako Ohiko Batzar Orokorra

2025eko Ohiko Batzar Orokorra, azaroaren 27an, OSTEGUNEZ, arratsaldeko 17:00etan (lehen deialdian), 17:30ean (bigarren deialdia) eta hala badagokio, 18:00etan (hirugarren deialdian) Agerialde eraikineko 3. solairuan (Alperroburu, 5) egingo dela jakinarazten dizuegu.

Batzarreko dokumentazioa bazkide diren familia eta ikastolako langileei emailaz helaraziko zaizue hurrengo egunetan. Hona hemen [deialdia](#).



Artezkariatzako kideen berritzea

Bazkide agurgarriak:

Artezkari-tza-Kontseiluak, bertako partaideen berritze partziala burutuko du azaroaren 27ko Ohiko Batzar Orokorrean. Horregatik, Artezkari-tzatik gonbita luzatzen da bere burua bolondres aurkeztu nahi duten bazkideei hautagaitza aurkeztea edo horretarako egokia ikusten diren hautagaiak proposatzea. Prozesu honen helburua da familien parte hartzea bermatzea gurasoon ordezkari izango diren kide berrien aukeraketan. AKn gauden guraso ordezkariok Ikastolako familia guztiak ordezkatzeko ditugu eta bertan eztabaidatu eta erabakitzen diren gaitara familien ahotsa eraman behar dugu. Garrantzitsua da organo horretan familien kezka, postura eta ikuspuntu anitzak mahairatzea.



Norbere burua aurkezteko interesa izan ezkerro edo hautagaiaren bat proposatu nahi izan ezkerro, idatzi mesedez, artezkari-tza@udarregi.eus helbidera.

Azaroak 25

Datorren **asteartean**, azaroak 25, Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko Nazioarteko Eguna ospatuko da. Hori dela eta, ikastolara soinean **more koloreko** zerbaitek ekartzera gonbidatzen da.



Azaroaren 28a jai eguna

Datorren **ostiralean**, azaroak 28, irakasle eguna denez, Ikastolan **jai eguna** izango da eta HH II. zikloko (3-6urte), LH-ko eta DBH-ko ikasleek ez dute eskolarik izango. Haur eskolako zerbitzua irekita egongo da.



Jardunaldi pedagogikoak

Udarregi Ikastolatik jakinarazi nahi dizuegu **azaroaren 26an** Kursaalen **Jardunaldi Pedagogikoak** ospatuko direla.

Hezkuntza arloan interes handiko jardunaldiak izango dira, eta gure komunitateko familiei ere gonbidapena luzatu nahi diegu.

Badakigu zuen artean hezkuntza munduan diharduten profesionalak ere bazaretela, eta uste dugu jardunaldi hauek interesgarriak eta aberasgarriak izan daitezkeela.

Jardunaldietako informazio guztia [hemen](#) aurkituko duzue.



Xiberoako ikastolen aldeko saskiak

Azaroaren 23a bitarte Xiberoako ikastolen aldeko saskiak eskuratzeko aukera izango da. Informazioa [hemen](#) topatuko duzue.



Iparaldeko ikastolen egutegiak salgai

Iparaldeko ikastolek urtero egin ohi duten bezala, 2025eko egutegia (**Seaska**) salgai jarri dute. Erosi nahi izanez gero, **Ikastolako idazkaritzan** egongo dira **salgai**. Bakoitzaren salneurria, **4 €**.



Euskarazko liburuen TRUKE AZOKA

Euskararen asteko egitarauaren barruan **euskarazko liburuen truke azoka** ospatuko dugu. Azoka hau abenduaren 2ean ospatuko da Agerialdeko patioan arratsaldeko 16:20etatik aurrera eta bertan hainbat mahai egongo dira ipuin eta liburuekin.

Azokan parte hartu ahal izateko, zuen seme-alabek etxetik euskarazko liburu bat(zuk) ekarri beharko dituzte gelara (egoera onean daudenak) eta tutoreari eman.

Tutoreak, truke azoka baino lehentxeago, ekarritako liburu bakoitzeko txarteltxo bat emango die. Txarteltxo hori mahaian dauden pertsoneri emanez nahi duten liburua hartu ahal izango dute ikasleek. Liburu bat, liburu baten truke.

Liburuak ekartzeko **azken eguna abenduaren 1a izango da** eta ekimena HH5 zein LHko ikasleei bideratua dago.

Zipriztindu ditzagun etxeko liburutegiak ere euskaraz!



Neguko katalogoa

Urtero bezala, Ikastolen Elkartetik helarazten duten [NEGUKO katalogoa](#) ikusi dezakezue.



HAUR HEZKUNTZA

Ez dago informaziorik.

LEHEN HEZKUNTZA

Ikusmen-osasuna

Azaroaren 25ean eta 26an LH1eko ikasleei ikusmen-osasuna prebenitzeko froga batzuk pasatzera etorriko da Teresa Olabarria optometrista.



Ipuin kontaketak

Azaroaren 26an, asteazkenarekin, **18:00etan** Sutegi Liburutegian, **6 urtetik gorako haurrei zuzenduta**, ipuin kontaketa saioa PELLO AÑORGAREN eskutik. Iraupena 60 minutu
[Ipuin kontaketa sorta](#)



BIGARREN HEZKUNTZA

Frantseseko DBH 3ko irteera

Azaroaren 27an, ikasleekin Tabakalerara joango gara "Les Héritiers" pelikula ikustera. Garraio publikoan joango garenez, **Mugi txartela** eramatea komeni da.



DBH2 eta DBH4 txertoaren baimenak

Osakidetzatik jakinarazi digute, aurten ere DBH2. eta DBH4. mailako ikasleen txertaketa kanpainari ekingo diotela. Horretarako, gurasoen baimena sinatu egin behar da eta, jakinarazten zaizue zuen seme/alabek baimen orria eramango dutela etxera **azaroaren 27rako sinatuta** ekartzeko. Txertoak honakoak izango dira:

- Ikasle guztiei, **Difteria Tetanosarena** DBH 4. Mailan
- DBH4. mailako eta DBH2. mailako mutilerik, **GPBarena (papilomabirusa)**

